

OHARRA: Hitzaldi hau aldatua izan daiteke. Balio duen bakarra, hizlariak berak ekitaldian ematen duena izango da.

NOTA: Este discurso puede ser modificado parcial o totalmente por el orador de manera que solo es válido lo pronunciado en el acto aunque estuviere aquí escrito.



2022.09.28 Bizkaiko Politika

Orokorreko osoko bilkura

**Jesús Lekerikabeaskoaren hitzaldia,
Euzko Abertzaleak taldeko bozeramailea**

28.09.2022 Pleno de Política

General de Bizkaia

**Intervención de Jesús Lekerikabeaskoa,
portavoz del grupo Euzko Abertzaleak**

Eguerdi on danori. Legealdi honetako azken Politika Orokorreko Plenua dogu gaur hemengue. Legealdi guztijek eukitxen dabez euren berezitasunek baina, argi dago legealdi hau errez erreza ez dala izen, ez gizartintzako ez gizartin alde bihar eitxen gabizenontzat be. Balorazinoiek bakoitxak berenak eukiko dauz eta argi geratu da gaur, ganbara honetan, bakoitxak gauzak bere erara ikusten dabezela, eta gehijen bat, istorije bakoitxak bere erara kontetan dabela, interesen arabera.

Legealdije ez da amaitxu, 8 hilabete oso, oso garrantzitsu doguz aurretik. Batzuk jada kanpainan zagoze, hemen entzundakoaren arabera, baina bitxartien, beste batzuk indartsu biharrien jarraitu biherko dabe egunero. Hemen izan dogu Ahaldun Nagusi jauna, Rementeria Maiz jauna, proiektu eta erronkei buruz berba eitxen. Ilusinoiaz, indarrak eta zintzotasunez; neke eta atxekija barik. Egoera gogor batetik urteten, munduari eragin deutson pandemija batetik, gure ustez, gestino zuzen eta egokije einez, danontzako barrije izan dan egoera bateri aurre egin eta gestionetan. Gaur egun, ziurgabetasun egoera baten sartute gagoz, Ukrainiako inbasioie eta mundu mailako krisi energetiko baten sartute, gestino zuzena eta egokije eginez jarraitzen dogu eta jarraitxu biherko dogu. Baina esan dot, hamen bakoitxak bere iritzije dauko eta iritzi, interes eta ustien gainetik datuek eta errealtatietek dagoz. Bitxartien Ahaldun Nagusi honek eta bere taldiek, egunero egunero, lanien jarraitzen dau bizkaitxar guztijentzako lanien, Autokonplazientziarik ez, inobilismorik ez, eta konformismorik bez.

Justu on dala bi urte, irailaren 28jen langabezija %12,1kue zan, iez %11,4kue eta gaur egun 9,3%kue; portzentai hotzak diz, beti esaten doten modure; eta datu bakoitxaren atzien pertsona bat dago. 2020ko abuztuen 81.646 langabe egozan, gaur egun 17.400 langabe gitxiago dagoz, 17.406 pertsona gitxiago lanik barik Bizkaian. Egoeriek hile batzuetan zer eingo daben jakitxie ez da erreza, edozertarako prest egon bihar gara, txarrenerako be bai. Momentu txarretan be zerbitzuek mantentzie eta hobetzie da gure helburuetako bat. Zerbitzuek mantendu eta hobetziek diru bilketaekin lotura zuzena dauko, danok dakigu. Gaur egun bilketa aurreikuspenak hobetuz doiez. Noizarte? Ikusiko dogu. On urte bi, diru bilketa aurreikuspenak baino %18 bajuaue zan, 2020 urtie %11ko berakadaz zarratu zan eta iez diru bilketa datuek, pandemiye aurreko zifretara bueltau ziren. Aurten, iez garai honetan baino %10 inguru hobiek dire. Zerga bilketa, jarduera ekonomikuaz zuzenien lotute dago. Barne produktu gordine 2020ko irailien %19,5 jaitsita zegon eta aurtengo aurreikuspenen arabera %6,7 inguru igongo da. Industri produkzioie garai haretan %28,6ko beherakada emonda egon zan. Pasa dan urteko lehen 7 hilabeteetan jarduera idustrialak %12,9ko hazkundie izan eban eta pasa dan urtetik, urte betien %8,1 igo da.

Meritxuek banatzen eta dominak ipintzen ez gara hasiko, bakotxak jakingo dau gitxi gora behera, zein izen dan, bere ekarpena urte honetan, Bizkaia hobe bat eukitxeko. Guk badakigu nun gobernatzen dogun eta zelan gobernatzen dogun, Jauralaritza, Foru Aldundijetan eta udal gehijenetan Bizkaian, herritarrek badakije zelan gobernatzen dogun eta zelan gestionatzen dogun. Eurek dire gure epailiek, eurek epaitu gaitxue beti eta eurek izengo dire, hurrenguen be. Gure epailiek ezdirez izengo oposizinoko alderdijek. Gu ez gaitu epaituko PPK, ez Elkarrekin Bizkaiak ez EH Bilduk.

Bitxartien, argi dogu badagola zer hobetu. Hori errepikatu ahal dot 100 aldiz biher bada. Ez dozue gure ahotik entzungo, dana ondo dagola eta dana bikain ein dala. Holakuek esateko zeuek zarie nahiku, dana txarto dagola esaten dozuenok. Gizartiek hori ez dau merezi, etsipena saldu nahi dabena joan daijela etxera. Ilusinoie, benetakue baina ilusinoie; aurrera eitxeko. Hori biher dau gizartiek eta agintarijok be bai. Gu aurrera goiez; gizartie eta jentie entzun eta sentiduz eta gure politikak gaurkotasunera eguneratuz. Egoeriek hori eskatzen daualako, gizartiek hori eskatzen daualako eta hori dalako eitxen dakigune. Horretan dabiz Ahaldun Nagusije eta bere goberneue.

Hiru helburu finkatu ebazan legealdi hasikeran: gizarte ekintzaren modernizazioa, lurraldea hobetzen jarraitzea eta emplegua eta jarduera ekonomikoaren alde bultzatzakadie emotie. Lerro horrek sendo hobetzen doiez. Berbetatik, ekintzetara eta ekintzetatik emaitzetara.

1. Gizarte ekintzaren modernizazioa: Emon dau jada Rementeria Jaunak erreferentzizjako eskualdeetako zentruen barri, pausu oso handije markau zan bide honetan baina hor jarraitzen dabe beste proiektuek be. EtxeTIC, dagoneko errealidade bat da Etxebarrin, Bilboko Etxanizen eta 260 etxietan zerbitzu hau martxan dago. Etxietan, gure nagusijek etxeetan bizi nahi dabelako ahal daben bitxartien eta ondoren etxien moduen edo antzerako lekuetan.

Nuestras y nuestros mayores nos lo han dejado claro. Mientras puedan, quieren vivir en sus casas. Y, después, en lugares lo más similares a sus hogares. Eso se pretende con las unidades convivenciales en los centros residenciales. Se anunció este camino hace dos años. Hoy en día ya está regulado en un decreto foral y contamos con 11 unidades autorizadas, otras 10 en proceso de autorización y 18 unidades en 3 residencias que se están construyendo. Los centros de IFAS están iniciando la transformación en Elorrio y Leioa, entre otros. Y sumado a todos ellos, de cara al futuro, todos los que ha señalado el Diputado General. En algunas residencias se pierden plazas para poder instalar este modelo; es inevitable, pero en las zonas en las que hay necesidad, abriendo nuevas residencias, se crean nuevas plazas. Modernizar la acción social, adaptarla y mejorarla. Esan eta ein.

2. Lurraldea hobetzen jarraitzen dogu: Esan, ein eta eitxen jarraitxu.

Guggenheim Gernika, Busturialdean, bai. Kulturie, aktibitate ekonomikue eta ingurumena uztartzen dabezen proiektu estrategikue, diferentzije markauko daben proiektue, azaldu da. Nun? Busturialdean.

OHARRA: Hitzaldi hau aldatua izan daiteke. Balio duen bakarra, hizlariak berak ekitaldian ematen duena izango da.

NOTA: Este discurso puede ser modificado parcial o totalmente por el orador de manera que solo es válido lo pronunciado en el acto aunque estuviere aquí escrito.

Erreka azpiko tunela, bai. Beharrezkue eta lehentasun bat da; gaur esan dan modure metroko 1 eta 2 lineak lotuz multimodalitasune lortuko da 600 miloiko inbersinoiaz. Erronka tekniko haundije da. Azaldu dau Rementeria jaunak zehatz.

Horretaz gain Sollube bai eta Markina eta Etxebarriko sahiesbidie, be bai. Ez dot EH Bildu plenuetan entzun Markinako sahiesbidea reibindikatzan. Lea-Artibaiko Bildu bai. Markinako-Xemeingo Bildu, be bai; baina, Batzar Nagusi honetan, ez.

Mettrue bai, linea bat gehijau anuntzijetan dogunien, zuek bi esaten dozue. Eta bi esaten badogu, zuek 3. Abanzada estaltziari, bai; guk 824 metro estaltzie proposatzen badogu, zuek 1000 edo 1600. Rekaldekoa guk X urtetan burutuko dala esaten badogu, zuek X+2... horrek bai aipatzen dozuez. Guzti horrerri guk beti bai, baina guk lehen eta oin, be bai. Beti proiektu handijek baina biharrezkuek dizelako; ezetzak ez dakarrelako ezer, beti jakin izen dogu. Baina berandu bada be, ongi etorri EH Bildu; berandu baina bazatoze. Ongi etorri lehen hormigoie inbertsio faraoikuek ziran bardinek on urjentiek dizela esaten dozue. Ongi etorri baina trankil, beste batzuk aspalditxik gagoz horretan eta.

Guk Busturialdean eta Lea-artibain be bultzatuko doguz inbersinoiek, lurraldea hobetzen, Ahaldun Nagusijek bere garaijen esan eban Markina-Xemeinen herritarren aurrien, ahalegina eingo ebala sahiesbidie errealdade bat izan daijen eta hamen dago. Proiektue laster amaituko da eta 2023en lizitazioie dator ezer ez bada okertzen.

Lurraldea hobetzen, eskualde guztijetan, ingurumenaren aldeko hobekuntzekin, jarrerak eta ekintza egokijekin, ibertsinoiek bai eta gestinoie be bai, gestino zuzena eta akordijuetan oinarritxue. Hondakinen Plan Integrala, hor dago eitxen ari dan lana, nahi izan doguna baino denbora gehija erun deusku, bai; hor dozue autokritika. Baina udal guztijeri zabaldu jake lan horretan parte hartzeko aukera, guztijeri parte hartzeko aukera. Talde politikook proposatu genduzen bere garaijen gure adituak ekarpenak eitxeko eta jaso ziren. Laster burutuko da plana eta horrek markauko da hurrengo urtietako ibilbidie eta erronkak ingurumenan alde hori be.

Hortik aparte, hondartzetako gestino egokije hor daukogu. Azken balorazioan, 8,5eko nota jartzen deusie. Ez guk, ez zuek; erabiltzaileek, beti nota ona eukitxen dabelez, inok ez dau aipatzen.

Basogintzan Eukaliptoaren Moratoria onartu dogu, batzuk. Ganbara honetako gehiengo zabal batek onartu dogu. Neurri populista da? Ez dot uste. Baso-jabe eta baso-kudeatzaile askok ez dabe begi onez hartu neurri hau, onartzen dot. Baina hartu beharra egon da beranduegi izan baino lehen eta horreatxik ein dogu. EH Bildu-ren aldeko botorik gabe. Gero akordio zabalak eta eskua luzatute daukozuela esaten dozue. EH Bildukoek pentsauten zenduen proposamen hau eitxeko ez ginile kapaz izengo. Gero, aurrien jarri gendunien, sustue hartu zenduen eta ondoren baiezkorik emon ez; gitxiegi dala esanez.

OHARRA: Hitzaldi hau aldatua izan daiteke. Balio duen bakarra, hizlariak berak ekitaldian ematen duena izango da.

NOTA: Este discurso puede ser modificado parcial o totalmente por el orador de manera que solo es válido lo pronunciado en el acto aunque estuviere aquí escrito.

Hori da saldu nahi dozuen akordiorako jarrera? Ados zagozenari be, baiezkie ez deutzozue emoten proposamena gurie bada. Kasu askotan, Bizkaian akordiorik ez badago, zuen jarreragatik da, askoz gitxiagotatik onartzen dauz EH Bildu-k akordio batzuk beste leku batzuetan. Eta askoz politika atzeratuauek defenditzen dotzu Podemosek hemendik kanpo. Baina igarri barik ez, danok ezagutzen gara hamen. Akordio zabalari buruz berba eitxen dogunien, niri hainbat gauza etortzen jatez burure. Hondakinen Plan Integrala aipatu dot, berau lantzeko orduen, ¿nor euki dau kontuen Antxustegi andereak? Taldiek. Taldiek proposatutako adituek eta udal guzti guztijek, 11 eskualde topaketa antolatu ziren, ekarpenak jasotzeko eta gehijenak jaso dira. Akordiorako jarrera.

Eukaliptoaren Moratoriarako, norekin egon da Antxustegi anderea? EHU/UPV departamentu desberdinekin, HAZI fundazioie, NEIKER, ENBA sindikatue eta Lorra, Ekologistak Martxan, Basoa fundazioie, 6 eskualdeko ADRak, Baskegur, Basogintza Elkarte eta Selbikultoreak, besteak beste; horretatik aparte gonbidatu eta etorri ez direnak. Akordiorako jarrera.

Lehen sektoreari laguntzeko azkenengo Txoke Plana dagola azaldu eban pasa dan asteen Antxustegi andreak. Otsailien sektoriek Ahaldun Nagusijaz batzie eskatu eban eta eurekin batu zan. Ondoren 11 mahai eratu ziren eta sektoreko ordezkari, sindikatu eta elkarte desberdinek entzun eta gero lehentasunek identifikatu eta proposamenak mahai gainien jarri eta dirulaguntzak martxan ipini dire.

Ibilgailu astunen trafikue erreguletao Foru Araue egiteko orduen, noreaz ez dau hitzegin edo nor ez dau kontutan hartu? Talde politikoeekin hainbat bilera egin dire, kontutan euki dotxuz udal afektauek 29, oker ez banabil. Garraio elkarteak, Asetravi, Asotrava, Loroño y Asociados, Progeco Bilbao, T.P.S., Transportes Bilbao. Horretatik aparte, Bilboko Aeroportue, Portu Agintaritza, Mercabilbao, Cebek, bestiek beste. Akordiorako jarrera hori da. Kasu honetan be badakigu zein dan oposizinoko taldien jarrera PPrena argi dago, kontra; baina EH Bildu-K eta Elkarrekin Bizkaiak badakizue lana ondo egin dala, eta ein ahal dan Foru Arau hoberena ein dala. Guk badakigu eta zuek badakizue; baina asko eskatzie da gure partetik zuen baiezkie jasotea ados zagozen gauzetan be.

Ampliar y mejorar el transporte público, mediante líneas de metro; mejoras en las autopistas; ordenación y regulación del tráfico pesado; límite de gasto en la A-8 y también en la AP-68 (máximo de 34,55 euros en Bizkaia); bici pista Amorebieta-Durango; la conexión a internet de alta velocidad de los caseríos y viviendas dispersas de Bizkaia donde nadie pretendía llegar y en estos doce meses 3.000 ya cuentan con conexión y otros 3.000 están en fase de obra. También seguimos reforestando los montes y recuperando especies propias del territorio. Residencias, unidades convivenciales de 25 personas., EtxeTIC. Impulso a la inserción laboral a través de las lanzaderas de empleo, los programas Lan Berri, Kontrata 2000 y 3R.

Guggenheim Gernika, Oma, variante Markina-Xemein y carretera de Sollube. Todos estos proyectos cuentan con amplios acuerdos, se diga lo que se diga. Y, ¿quién está en contra de todo? Los y las de siempre. Nos pasamos el día hablando de consensos, pero cuando se les presenta la oportunidad, aquí

en Bizkaia por lo menos, no les interesa. Y, lo que es peor: cuando los proyectos cuentan con el apoyo de las personas afectadas o los agentes implicados, escenifican que tampoco les gusta el acuerdo alcanzado. Sabemos que se tienen que diferenciar, pero no puede ser siempre a expensas de esta sociedad, en algún momento tendrán que hacer coincidir sus palabras con sus hechos. Cada uno y cada una sabrá porqué tienen esa necesidad de salirse de la foto. Mientras tanto, el Partido Nacionalista Vasco seguirá aquí; con los pies en el suelo. Mejorando Bizkaia, paso a paso y de la mano de la ciudadanía.

Gizartien eskutik, hurbil eta hurbiltasun horren beste adibide garbije Gertu buleguek diz, batzuk martxan dagoz eta beste batzuk laster izengo diz lurralde guztitik hurrenguek 2023en Markinan eta Igorren. Administrazioie hurbildu esan dotenien. Errenta Kanpaina jatort burure, aurten egon da Errenta Kanpaina, ezta? Batzuk ez dabe aipatu baina entzun dot Ahaldun Nagusije azalpenak emoten, iez be emon ebezan. Esan genduen pasa dan urtien: autokonplazientziarik ez, autokritika bai, datorren urtien hobetuko da, bazegoelako nun hobetu eta urte gitxitan eredue izengo zela zerbitzu hau. Atril honetan esandakoa, esan eta ein; sistema barrije martxan dago. Oposizinoiek esan dau ezer gaur hamen? Ez; oposizinoiek ez badau aipatzen bikaintasune ez dago urrun. Jada eredu gara, zorijonak Rementeria jauna, Iruarrizaga jauna zuri eta zure talde guztijari. 8,5, eskolan hori ije-ije bikain bat da, ez da nik jartzen doten notie, Bizkaitzarrek jarri dotsue, zorijonak. Aurtengo datuek: 614.276 aitorpen aurkeztu dira. Administrazioie aurrera doie modernizazioien eskutik; ez doie gizartetik urruntzen. Herritarrekin hurbiltasune sendotu, bai; baina sistema eta erronka barrijek alde batera utzi barik, ur ustela modure estankaute geratu barik.

Zerbitzuek hobetzen doiez eta horretarako, danok dakigu, zerga bilketa beharrezkoa dala. Biketa justue eta proportzionatue izen biher da eta horretarako hirugarren ardatza.

3. Enplegua eta jarduera ekonomikue bultzatzie: ezin bestekuek dire. Baina berbekin bakarrik eta modelu eztabaidakin bakarrik ez dogu ezer eitxen; ideiak, proiektuek eta inbetsinoiek, biher dire.

Bizkaiko ekintzailtza zentroa, BIZKAIKO DORREA, urte bete barru burutute egon ahalko zela esan gendun pasa dan urtien atril honetan, eta errealdade bat da gaur. Zenbat eta zenbat galdera, zenbat agerraldi eskari, zenbat akusazino merke, ze helburuaz? Basurko andrea erretzeko helburaz? Horretan jai daukozue, hori ondarrutarra da eta ondo ezagutzen dot, jai daukozue. Eskerrik asko Ahaldun Nagusi jauna eta eskerrik asko Basurko andrea egindako lanagaitxik. Oposizinoiek hitz kritikoak euki ebazan hasikeran adjudikazioie bide batetik jungo zala uste ebelako eta gero beste bide batetik gauzatu zalako, gauza bateaitxik edo kontrakuaitxik. Prozedura garbije eta argije izen da. Esan neban pasa dan urtien hamen, inok kontrakue esaten badau jun daijela epaitegire, zintzo eta konsekuente izenda. Jun zarie inor epaitegire? Ez. Dorrie inauguratu zan pasa dan astien eta ni ez, baina han egon zinien batzuk. Errealdade bat da nahiz eta batzun laguntzarik euki ez, lehen faseko 4.000 metruiek %80jen okupaute dagoz eta bigarren faseko beste 4.000 metruari kolpeteko modure gagoz. Betetzie ez da helburue, ondo betetzie

OHARRA: Hitzaldi hau aldatua izan daiteke. Balio duen bakarra, hizlariak berak ekitaldian ematen duena izango da.

NOTA: Este discurso puede ser modificado parcial o totalmente por el orador de manera que solo es válido lo pronunciado en el acto aunque estuviere aquí escrito.



baino, esan dau Rementeria jaunak, talentue erakarri eta sortu horixe da benetako helburu eta benetako inbertsinoie. Baina ongotan be emaitzak berben gainetik. Hemen daukoguzen baldintzekin eta emoten dogun segurtasunegaitxik 12 enpresa erakarri dire 1.000 lanpostu sortzeko konpromisuaz; 1.000 lanpostu, 1.000 pertsonentzako. Horrek ez diz berba eta eredu hutsek, datuek eta emaitzak dire.

Ilusinoie eta konfidantzije sortzen dabenak eta hori ez da lortzen etsipena, liskarra eta deskonfidantzie irudikatzen. Etxipenak, liskarrak eta deskonfidantziek, urbiltzie barik urruntzie dakarte. Gizartiek hori ez dau nahi. Ilusinoie eta lana, bizkaitxar guztijek kontutan eukitxe eta txartuen dagozenak lehentasun bihurtute, horri begire gehijen bat jarraitu behar dogu lanien. Bizijen kostie gora badoie, eta hori ez badago gure esku, gure esku dagozen neurrijek hartuko doguz, golpe horri hobeto eutsi ahal izeteko. Horretarako aldaketa fiskalak ingo doguz eta deflaktazinoie, kaltetuenari gehijau laguntzeko da, esaten dozuena esaten dozuela guk argi dogu eta horregaitxik aplikauten dogu. Fiskalidatie horretarako egokitzen dogu, horretarako eta lortu nahi doguzen zerbitzuek eta helburuek lortzeko. Diskusino antzuetan denpora galtzeko ez gagozelako, gauzari bere izenetik deitxu biher jakelako, gizartiek nahasterik ez dabelako nahi. Berbak, ekintzekin lotu bidizelako eta ekintzak emaitzekin. Beste guztije keie da, keie. Eta guk ez dogu kerik salduko eta ez deusuegu kerik erosiko.

Amaitzeko, beti esaten dogune. Eguneroko gestinoien hobetzen jarraitxu bihera dago, zerbitzuek hobetzen jarraitxu biher dogu. Modernizazinoie eta gertutasune lotute, proiektu txiki eta hurbilek erronka handijekin batera burutzen jun biher gara Bizkaia guztijen. Guzti hori, guk dakigun erara, guk daukogun gobernantza ereduaz, azaldu, lan ein eta berbie betez. Beti, beti gizartie entzunde eta jentientzako lana ein ez egunero, egunero. Hori da bidie, Ahaldun Nagusi jauna, hori da eitxen dakigune, ein dogune eta ingo dogune.

Eskerrik asko eta arratsaldera arte.